

Kristina Berasain Tristan

Eñaut Aiartzaguena Bravo

Egilea: **Kristina Berasain Tristan**
Ilustrazioak eta maketazioa: **Eñaut Aiartzaguena Bravo**
Argitaratzailea: **Arabako SEADen Lagunen Elkartea**

ISBN_ 978-84-09-82735-0


Banatzailea: Arabako SEADen Lagunen Elkartea
Antonio de Sucre, behea (01003) Vitoria-Gasteiz
945147853
www.saharaelkartea.org

Arabako SEADen Lagunen Elkartea
Asociación de Amigos y Amigas de la RASD de Álava

LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN Y SOLIDARIDAD



MUHA ETA AMONA LALA





Esku artean duzun liburu hau saharar herriarentzako justizia eta memoriarekiko konpromiso irmo eta amets partekatu batetik jaio da. Muharen begiradatik, amona Lalaren oroitzapenen laguntzaz, herri honen historian murgilduko gara: dunak eta ozeanoak zeharkatzen dituen bidaia bat da, errefuxiatuen kanpamenduko isiltasuna herri libre bateko olatuen xuxurlarekin lotzen duena.

Arabako SEADen Lagunen Elkarteak, eLankidetza Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren laguntzarekin argitaratutako ipuin honek gure inguruko haurrei saharar herriaren errealitatea gerturatzea du helburu, euskarazko haur literatura aberastuz.


Horrez gainera, ipuin hau, hassanierara itzulita, Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetara ere joango da. Hala, haur sahararrek beren historiari buruz irakurri ahal izango dute eta gogoratu, amona Lalak dioen bezala, beren desertuak itsasoa ere baduela eta itxaropena, zeruertza bezala, infinitua dela.



Ni Muha naiz eta ezerezaren erdian bizi naiz, basamortuen basamortuan. Hemen harriak baino ez daude. Ez dago dunarik.




Hau nire familia da.
Lala,
amona.
Kaltum,
ama.
Zuenanu,
ahizpa.


Eta hau gure
dromedarioa da.
Ez dauka izenik.



Lurrez egindako etxe batean bizi gara eta ondoan haima bat daukagu. Kanpotik zuri-zuria da, baina barrutik kolorez beteta dago. Oso polita da!




Dantzan eta jolasean ibiltzen gara.
Gauetan, amonak ipuinak eta
kondairak kontatzen dizkigu.

Shertat xelebrearen
istorioekin barre asko
egiten dugu.
A ze txoropitoa!



Sig jolasean ere aritzen gara. Zortzi makilatxorekin jolasten da. Alde batetik pintatuta daude, eta beste aldetik ez. Amak irabazten du beti.





Ondoren, izarrak ikustera ateratzen gara. Behin, izar uxo bat ikusi nuen.



Zerua alderik alde zeharkatu zuen, azkar-azkar, ziztu bizian...

Buztan luze-luzea zuen, hori-horia.



Lala amonak dio ekaitz gorriaren urtean jaio zela, eta haurra zenean hemendik urrun bizi zela, benetako basamortu batean.



- Nomadak ginen. Leku batetik bestera mugitzen ginen, hodeien atzetik. Haimak desmuntatu, dromedarioaren gainean jarri, eta belarra zegoen tokietara joaten ginen. Euria non egingo, han jartzen genuen kanpalekua. Bizimodu ederra zen. Libre bizi ginen, basamortu zabal-zabalean.

Nomadek etxea gainean eramaten zuten, dordokek bezala.



Lala amonak dio basamortua bizitzaz beterik dagoela.

- Euria egiten duenean, berde-berdea da. Lore pila ateratzen dira: horiak, laranjak, gorriak... Alfonbra bat ematen du. Lore zuriak ere ateratzen dira. Orduan elurra egin duela ematen du.





Lala amona beti dabil kontu kontari. Basamortuaz hitz egiten duenean irribarrea dauka ahoan, baina batzuetan gerraz hitz egiten du, eta orduan malkoak ateratzen zaizkio begietatik.

- Tankeak, hegazkinak, bonbak... Egun batetik bestera, ihesi atera behar izan genuen, korrika batean, beldurtuta. Saharar asko ginen.
Herri oso bat.




Egunak eta gauak pasa genituen oinez hona iritsi ginen arte, baina hau ez da gure lurra. Hau lur antzua da.



- Ba al dakizue zer den basamortuan ikusi dudan gauzarik ederrena? - galdetu zigun egun batean.

- Muskerra? - Ostruka? - Eskorpioia?




- ITSASOA!
esan zuen amonak.


Nik banekien basamortua infinitua zela, ez zela inoiz bukatzen, baina ez nekien itsasoa zuenik.



- Gureak bai. Itsasertzen jarri genuen kanpalekua. Egun itzela izan zen. Hondartza itsas izarrez beteta agertu zen, olatuekin jolastu ginen, eta arratsean izurdeak agertu ziren, salto-saltoka.



Ahizpak eta biok elkarri begiratu genion, zur eta lur. Ez genekien izurdeak zer ziren, hemen, errefuxiatuta bizi garen leku honetan, ez baitago itsasorik. Amak, orduan, telefono mugikorra hartu eta izurde hitza bilatu zuen. Hantxe agertu zen pantailan zilar koloreko animalia eder hura.




- Konkorra dauka, gure dromedarioak bezala!

Lala amonaren masailean behera bi malko erori ziren.



- Uste nuen sekula ez nuela berriz ere izurde bat ikusiko. Gure aita zenak azaldu zidan arrantzaleek bazekitela izurdeak ikusiz gero inguruan arrain asko zebilela. Gure itsasoak arrain asko ditu.



- Zeintzuk, amona?

- Olagarroak, otarrainak, hegaluzeak, sardinak, merlenkak, berdelak, legatzak, bisiguak, zapoak...





- Gure herria basamortu puska bat besterik ez balitz, bakean biziko ginateke, gure lurraldean.

- Saharara itzuliko gara amona, itsasoa duen gure basamortura, eta izurdeekin jolastuko gara. Ikusiko duzu!



- Inshalah!, esan zuen amonak; ‘Hala bedi’!
Eta lotara joan zen.



Gau hartan pentsatu nuen basamortua eta itsasoa antzekoak direla.



Basamortua hondarrez beteta dago eta itsasoa urez, batean dunak daude eta bestean olatuak, batean dromedarioak daude eta bestean izurdeak, baina biak dira infinituak, eta bietan sentitzen zara libre.



Asociación de Amigos y y Amigas de la RASD de Álava
Arabako SEADen Lagunen Elkartea
Antonio de Sucre 1, behea
01003 Vitoria-Gasteiz

www.saharaelkartea.org
administrazioa@saharaelkartea.org

